

## BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

### 340

*EBAZPENA, 2023ko abenduaren 22koa, Araubide Juridikoaren sailburuordearena, zeinaren bidez argitara ematen baita Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Aldebiko Lankidetzaren Batzordearen Akordioa, 2023ko abenduaren 21ekoa. Akordio hori lege honen arlokoa da: 1/2023 Legea, martxoaren 16koa, Euskal Administrazio Publikoen zehatzeko ahalari buruzkoa.*

Konstituzio Auzitegiaren urriaren 3ko 2/1979 Lege Organikoaren 33.2 artikuluan aurreikusitako akordioa lortuta, eta artikulua horren c) letran ezarritakoarekin bat etorriz, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.— Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Aldebiko Lankidetzaren Batzordearen Akordioa, Euskal Administrazio Publikoen zehatzeko ahalari buruzko martxoaren 16ko 1/2023 Legearen gainekoa. Ebazpen honen eranskinean jaso da Akordioa.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko abenduaren 22a.

Araubide Juridikoaren sailburuordea,  
SABINO TORRE DÍEZ.

## ERANSKINA

AKORDIOA, Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Aldebiko Lankidetzaren Batzordearena, honako lege honen arlokoa: 1/2023 Legea, martxoaren 16koa, Euskal Administrazio Publikoen zehatzeko ahalaria buruzkoa.

Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Aldebiko Lankidetzaren Batzordeak akordio hau egin du:

I.– Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Aldebiko Lankidetzaren Batzordearen Akordioaren bidez, Euskal Administrazio Publikoen zehatzeko ahalmenari buruzko martxoaren 16ko 1/2023 Legearen 9.10 artikularen inguruan agertutako desadostasunak aztertu eta konpontzeko proposamena egin zen. Bada, lantalde horrek aurretik egindako negoziazioekin bat etorriz, bi aldeek uste dute desadostasun horiek konponduta geratu direla, konpromiso eta gogoeta hauen arabera:

Bi aldeek ulertzen dute martxoaren 16ko 1/2023 Legearen 9.10 artikulua ez dakarrela berekin Fiskaltzari eginkizunak esleitzea.

Bi aldeek ulertzen dute aipatutako araua kasu bakar batean aplikatuko dela, zehazkiago, une bakoitzean indarrean dagoen estatuko legeriak Fiskaltzari arauan aurreikusitako eremu materiale-tan aipatzen diren eginkizunak esleitzen dizkionean.

II.– Lortutako akordioa dela-eta, bi aldeek konpondutzat jotzen dituzte adierazitako desadostasunak, eta planteatutako eztabaida amaitutzat ematen dute.

III.– Akordio hau Konstituzio Auzitegiari jakinaraziko zaio, Konstituzio Auzitegiaren urriaren 3ko 2/1979 Lege Organikoaren 33.2 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, eta «Estatuko Aldizkari Ofizialean» eta «Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian» argitaratuko da.

Lurralde Politikako eta Memoria Demokratikoko ministroa,  
ÁNGEL VÍCTOR TORRES PÉREZ.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,  
OLATZ GARAMENDI LANDA.